



**AMOREBIETA-ETXANOKO
UDALERRIAN GAZTEEI
ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO
DIRULAGUNTZAK EMATEKO
2025KO DEIALDIA**

Udalbatzak 2018ko uztailaren 13an ezohiko Osoko Bilkuran, Amorebieta-Etxanoko udalerrian gazteei Etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak ematea arautuko duen ordenantza hasiera batean onartzea erabaki zuen. Testua 2018ko irailaren 25 (e)ko 185. zk.dun BAOean argitaratu zuen.

1.artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da Amorebieta-Etxanoko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten edo urte honetako urriaren 31a baino lehen izatea hitzematen duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteei alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea.

Dirulaguntza hori oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak gutxienez hamabi hilabetez izandako alokairu gastua kontuan hartuta eta, betiere, baldintza horiek denbora tarte horretan mantentzen badira.

2. artikulua. Araudi aplikagarria

Dirulaguntza hauek ematea bera, eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, oinarri arautzaileak eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean den araudiak aginduko ditu.

Oinarri arautzaileetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege

**CONVOCATORIA 2025 PARA LA
CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL
ALQUILER DE VIVIENDA PARA
JÓVENES EN EL MUNICIPIO DE
AMOREBIETA-ETXANO**

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, en Sesión Plenaria Extraordinaria celebrada el día 13 de julio de 2018 acordó aprobar inicialmente la Ordenanza Reguladora de las Bases por las que se establece la concesión de ayudas para el alquiler de vivienda para jóvenes en el municipio de Amorebieta-Etxano, publicándose el texto en el B.O.B nº 185 de fecha 25 de septiembre de 2018.

Artículo 1. Objeto

La presente convocatoria tiene por objeto contribuir en parte al pago del alquiler a jóvenes de 18 a 35 años que dispongan o se comprometan a hacerlo antes del 31 de octubre del año en curso, de una vivienda destinada a domicilio habitual en régimen de alquiler en el término municipal de Amorebieta-Etxano.

La subvención se realizará según las condiciones establecidas en las bases reguladoras, para el gasto de alquiler asumido por el o la beneficiaria durante un mínimo de doce meses, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante dicho periodo de tiempo.

Artículo 2. Normativa aplicable

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las bases reguladoras y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Además de lo establecido en las bases reguladoras, esta subvención será regulada por:

- Ley General de Subvenciones





Orokorra, azaroaren 17koa.

- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Amorebieta-Etxanoko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza orokorra (149 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2008ko abuztuaren 6koa).

38/2003 de 17 de noviembre.

- Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ordenanza general de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano (Boletín Oficial de Bizkaia nº 149, de 6 de agosto de 2008).

3. artikulua. Onuradunak

Pertsona fisikoak izan daitezke 2025ko ekitaldiaren kargurako laguntzen onuradun, bai banaka, bai elkarbizitza-unitate batean bilduta.

Elkarbizitza-unitate bat osatzen dute senar-emazteek edo izatezko bikote erregistratuak, eta, hala badagokio, haien ardurapeko seme-alabek, bai eta guraso bakarreko unitateek ere, aita edo ama bakar batek eta haien ardurapeko seme-alabek.

Dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera eta diruz laguntzea aurreikusten den aldi osoan ondorengo baldintza zehatzak betetzen dituzten elkarbizitza-unitateko pertsona guztiak:

- a) 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea, bizikidetzatza unitatean kide diren mendeko adin txikikoak izan ezik.
- b) Eskatzaile edo bizikidetzatza unitateko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan izan ezik, baldin eta titularkidetasun horren ehunekoak ez badu, %50 gaintitzen eta etxebizitzetako partaidetzaren balioa 75.000 eurotik gorakoa ez bada.

Artículo 3. Personas beneficiarias

Podrán ser beneficiarias de las ayudas con cargo al ejercicio 2025, las personas físicas, tanto a título individual o como agrupadas en una unidad de convivencia.

Constituyen una unidad de convivencia las personas unidas en matrimonio o como pareja de hecho registrada, y en su caso, los hijos e hijas a su cargo, así como las unidades monoparentales formadas por un único padre o madre y los hijos e hijas a su cargo.

Todas y cada una de las personas integrantes de la unidad convivencia, a la fecha de publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de esta convocatoria y durante el periodo subvencionable, deberán cumplir los siguientes requisitos específicos:

- a) Tener una edad entre 18 y 35 años, excepción hecha de los y las menores dependientes que cohabiten en la Unidad Convivencial.
- b) Que ningún o ninguna solicitante o miembro componente de la Unidad Convivencial posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50% y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000 euros.





- c) Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetza unitateetan sartutako pertsona guztiak dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatu beharko dira alokairu kontratua sinatu ostean, datu hau dirulaguntza jaso baino lehen egiaztatu beharko dute, eta etxebizitza horretan erroldatuta egon beharko dira diruz lagundutako denboraldian.

Halaber, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxebizitzan erroldatuta kontratuaren titularrek erroldan baja eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

- d) Bizikidetza-unitatea osatzen duten helduetako bat, gutxienez, Amorebieta-Etxanoko udalerrian erroldatuta egotea 10 urtez edo azken 2 urteetan, hurrenez hurren, eskaera aurkezten den unean.
- e) Bizikidetza unitatearen diru-sarreraren muga, honako hau baino txikiagoa izango da: 28.000 euro gordin urtean.
- f) Diru-sarreraren osaerari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 601,10 eurotik gorakoa izan.
- g) Bizikidetza Unitateko kide guztiek Amorebieta-Etxanoko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketak eguneratuta izan behar dituzte.

- c) Todas las personas que forman parte de la Unidad Convivencial del o de la solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato, cuestión que acreditarán con carácter previo a la percepción de la ayuda y deberán permanecer empadronadas en la misma durante el período que comprenda la subvención.

Asimismo, en caso de que haya personas, no titulares del contrato, empadronadas en la vivienda con fecha anterior al inicio del contrato, los y las titulares del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.

- d) Que, al menos, una de las personas adultas integrantes de la unidad convivencial haya estado empadronada en el municipio de Amorebieta-Etxano durante 10 años o durante los 2 últimos años de manera consecutiva en el momento de presentar la solicitud.
- e) Los ingresos de la Unidad Convivencial serán inferiores a 28.000 euros brutos anuales.
- f) En cuanto a la composición de los ingresos, la cuantía de rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido, no podrá superar en su conjunto la cifra de 601,10 euros anuales.
- g) Todos los miembros de la Unidad Convivencial tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de





Amorebieta-Etxano.

- h) Familia Unitateko ezein kidek ez du errentatzailearekin inolako familia loturarik izango odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorraren 13 artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Amorebieta-Etxanoko dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzailean ezarritako baldintzak bete izana egiaztatu beharko da.

- h) Ningún miembro de la Unidad Convivencial tendrá vinculación familiar con el o la arrendataria hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

En todo caso, para la consideración de beneficiario o beneficiaria, habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones de Amorebieta-Etxano.

4. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak

- a) Etxebizitzetako dagozkienak

1. Diruz lagunduko den etxebizitza librean Amorebieta-Etxanoko udalerrian kokatuta egon beharko du, eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du.

2. Edonola ere, etxebizitzak gutxienez izango du bizikidetzaren unitateko bi pertsonako logela bat (gehienez).

- b) Alokatzeko kontratuetako dagozkienak

1.- Etxebizitzaren alokairua ezin izango da hileko 650 eurotik gorakoa izan (eratzikiak barne)

2.- Alokairu kontratuak erregistratu beharko dira eta fidantzaren zenbatekoa Eusko Jaurlaritzaren esku jarri beharko da (3/2015 Legea, ekainaren 18koa)

3.- Ez dira diruz lagunduko urte

Artículo 4. Requisitos que deberán cumplir las viviendas

- a) De las viviendas

1. La vivienda objeto de ayuda, de carácter libre, deberá estar situada en el término municipal de Amorebieta-Etxano y deberá contar con la correspondiente licencia de primera ocupación.

2. En todo caso, la vivienda deberá contar, al menos, con un dormitorio por cada dos personas (como máximo) de la unidad convivencial.

- b) De los contratos de arrendamiento

1.- El precio del alquiler de la vivienda no podrá superar la cantidad de 650 euros/mes (incluidos anejos).

2.- Los contratos de arrendamiento se deberán registrar y depositar el importe de la fianza en el Gobierno Vasco (Ley 3/2015 de 18 de junio)

3.- No se subvencionarán contratos





betetik beherako iraupena izango duten alokairu kontratuak.

5. artikulua. Baztertzeak

Ez dira dirulaguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaerak:

1. Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
2. Azpierrementamenduak.
3. Logelen alokairuak (logela eskubidea).
4. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
5. Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.
6. Gaztelagun programaren alokairu laguntzak.

6.- artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntzetarako lege orokorraren 14. artikuluan eta Amorebieta-Etxanoko Udalaren Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantzan datozenez gain, onuradunak ondorengoak ere bete beharko ditu:

- Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea dirulaguntza.
- Eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Amorebieta-Etxanoko Udalari.
- Dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako edozein gorabehera -hala objektibo, nola subjektibo- aldatzen bada, horren berri ematea.
- Dirulaguntza jasotzeak dakartzan zerga derrigorak betetzea. Amorebieta-Etxanoko Udalak ez du erantzukizunik izango dirulaguntza hau jasotzeak onuradunari ekar dakizkion zerga ondorioetan.

de arrendamiento de duración inferior a 1 año.

Artículo 5. Exclusiones

No procederá la concesión de las ayudas a las solicitudes donde concurra cualquiera de las siguientes circunstancias:

1. Viviendas de protección oficial de promoción pública.
2. Los subarriendos.
3. Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).
4. Los locales usados como viviendas.
5. Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.
6. Ayudas al alquiler de vivienda del programa Gaztelagun.

Artículo 6. Obligaciones de la persona beneficiaria

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de las Subvenciones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, son obligaciones del beneficiario o beneficiaria:

- Utilizar la subvención para el destino para el que haya sido concedida.
- Aportar al Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano cuanta información complementaria les sea solicitada.
- Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tomada en cuenta para la concesión de la subvención.
- Asumir las obligaciones tributarias que pudieran derivarse de la percepción de la subvención. El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano no tendrá responsabilidad alguna en las consecuencias tributarias que la





percepción de esta subvención pudiera ocasionar en la persona beneficiaria.

7. artikulua. Eskabideak aurkeztea: epea eta modua

Eskariak aurkezteko epea zabalik egongo da deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera eta 2025ko urriaren 31ra arte.

Eskariak, Udaleko Alkate-Udalburuari zuzenduak, Herritarren Arreta Zerbitzuan, Amorebieta-Etxanoko Udaletxeko Egoitza elektronikoaren bitartez edo Administrazio Prozedura Erkidearen 39/15 Legearen 16. art.ak ezarritako moduan eta epeak betez aurkeztu beharko dira. Horretarako, eredu ofiziala osorik eta behar bezala beteta aurkeztu beharko da (E154).

Eskabidearekin eman beharreko agiriak:

- a) Eskabidea, behar bezala bete eta sinatua.
- b) Adin txikikorik balego, Familia Liburua ere aurkeztuko da. Azken agiri hori kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
- c) Etxebizitzaren alokairu kontratua, diruz lagun daitekeen epe barnekoa.
- d) Etxebizitzaren titularkidetasuna badago, beharrezkoa izango da honakoak aurkeztea:
 - Herentzia kasuan, herentziaren onarpen agiria eta etxebizitza partaidetzaren eskritura.
 - Dohaintza kasuan, dohaintza eskritura
 - Partaidetza saldu bada, eskualdatzearen eskritura.
 - Alokairuaren erreziboak edo

Artículo 7. Presentación de solicitudes:

El plazo de presentación de solicitudes comenzará el día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y finalizará el 31 de octubre 2025

Las solicitudes, dirigidas a la Sra. Alcaldesa del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano se deberán presentar en el Servicio de Atención Ciudadana, a través de la Sede electrónica del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano o por cualquiera de los medios señalados en el art. 16 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común, formalizándose en el modelo oficial (E154).

Las solicitudes deberán comprender:

- a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
- b) En el caso de existir menores de edad, se aportará, además el Libro de Familia. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación en caso de alegar descendencia.
- c) Contrato de arrendamiento de la vivienda, abarcando el periodo subvencionable.
- d) En caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación de:
 - En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.
 - En caso de donación, escritura de donación
 - Si se produjera la transmisión de la participación: escritura de transmisión.





alokairua ordaindu izana egiaztatzen duten bankuko egiaztagiria.

- e) Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

8. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi duela iritziko da, eta prozedura artxibatuko da, 39/2015 legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan xedatutakoarekin bat.

9. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, gehienez, diruz lagun daitekeen kopuruaren %50. Gehien jota, 250 euro izango dira hileko eta gehienez 12 hilabetetan.

Oinarri arautzaileetan ezarritakoa betetzeko, alokairutik kanpo edo diruz lagun daitekeen kopurutik kanpo geratzen dira garajeei eta komunitate eta administrazio gastuei dagozkionak eta kontribuzio eta ariel gisa jasoko direnak, dagokion kontratuan berariaz aipatu arren.

Alokatzeko kopurutik 30 euroko kopuru finkoa kenduko da aurreko paragrafoan adierazitako garajeagatik edo

- Recibos de alquiler/justificante bancario de abono del alquiler.

- e) Cualquier otro documento que pueda tenerse según los requisitos de concesión de la ayuda.

Artículo 8. Subsanación de defectos.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a los y las interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin que subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artº 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 9. Cuantía de las ayudas.

La cuantía de la subvención se establece en un máximo del 50% de la cantidad subvencionable, con un límite máximo de 250,00 euros/mes por solicitud para un periodo máximo de 12 mensualidades.

A efectos de lo dispuesto en las bases reguladoras, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, los correspondientes a garajes y gastos de comunidad y administración, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Se descontará del coste de la mensualidad de alquiler, un valor fijo de 30 euros por garaje o gastos de





komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan jasota daudenean eta bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikazioa aurkezten ez denean.

Emango diren dirulaguntzen kopuruak aurrekontuetan xede horrekin jarritako kopurua gainditzen badu, udalak dirulaguntza guztien artean hainbanatu ahal izango du.

10. artikulua. Dirulaguntzen ordainketa

Emango den dirulaguntza pertsonala izango da eta alokairu kontratu bakoitzeko dirulaguntza bakarra emango da.

Dirulaguntza eskuratzeko ordainketa bakar batean ordainduko da, ebazpena ematen denetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

11.artikulua. Justifikatzeko agiriak

Modu orokorrean, deialdi honen xede diren dirulaguntzak 2026eko ekitaldiko lehen bi hilabeteetan egiaztatu beharko dira eta horretarako, egiaztatze agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Alokairu kontratuaren baitan eginiko hileko ordainketa agiriak.
- b) Diruz lagundutako alokairua finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Gastuak justifikatzeko fakturak eta trafiko juridiko eta merkantilean proba gisa balio duten agiriak aurkeztuko dira, administrazioan eragina dutenak, orijinalak edo kopia konpulsatuak.

comunidad descritos en el párrafo anterior, cuando estén incluidos en el contrato de alquiler y no se aporte justificación expresa del coste mensual de cada uno de ellos.

En caso de que el importe total de las subvenciones a conceder supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, el Ayuntamiento podrá proceder al prorrateo de la misma entre todas ellas.

Artículo 10. Abono de las ayudas

La subvención reconocida es de carácter personal y sólo se concederá una ayuda por contrato de arrendamiento.

El abono de la subvención se realizará en un pago único en el plazo de un mes desde la fecha de la resolución.

Artículo 11. Documentación justificativa

Con carácter general, las subvenciones objeto de la presente convocatoria se justificarán en los dos primeros meses del ejercicio 2026, mediante la presentación de la documentación justificativa que contendrá:

- a) Justificantes de los pagos de las mensualidades correspondientes del contrato de alquiler.
- b) Relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado el alquiler subvencionado, con indicación del importe y su procedencia.

Los gastos se justificarán con facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, en original o copia compulsada.





12.artikulua. Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Oinarri arautzaileetan arabera emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateragarri ezin izango dira.

Laguntza horien eskatzaile gisa, berariaz baztertuta daude Bizigune programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten eskatzaileak.

Edozein kasutan, prestazioak irauten duen aldian, eskatzaileek egiaztatu beharko dute bizikidetza unitateko kideek helburu honekin emandako prestazio ekonomikoa jasotzeko izan dezaketen eskubidea. Alderantziz, ezin izango dute jaso oinarri arautzaileetan alokairurako ezarri den dirulaguntza osagarria.

13. artikulua. Finantzazioa

Dirulaguntza hauek 2025ko Udal Aurrekontuko 2311 48001 partidatik, 10.000,00 euroko gehieneko kopurua, eskuragarri dauden kredituei egotziko zaizkio.

14.artikulua. Dirulaguntza ematea

Dirulaguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri arautzaileetan 4. eta 5. artikuluan zehazten dira.

Baldintzak betetzen direla egiaztatuta, dirulaguntzak emango dira, Oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan.

15. artikulua. Prozedura

Instrukzioa eta proposamena

1. Oinarri arautzaileetan bildutako laguntzak emateko **órgano** **instruktoarea** **Amorebieta-Etxanoko**

Artículo 12. Concurrencia con otras ayudas

Las ayudas concedidas de acuerdo con las bases reguladoras no serán compatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

Se excluyen expresamente como demandantes de dichas ayudas los y las jóvenes que dispongan de una vivienda alquilada a través del Programa Bizigune.

En todo caso, las personas solicitantes tendrán que hacer valer durante todo el periodo de duración de la prestación, todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder a cualquiera de las personas miembros de la unidad de convivencia relacionadas con este objeto. De lo contrario, no podrán recibir la ayuda complementaria de alquiler establecida en las bases reguladoras.

Artículo 13. Financiación

Estas ayudas se imputarán a los créditos presupuestarios disponibles de la partida 2311 48001, la cantidad máxima de 10.000,00 euros del Presupuesto Municipal del 2025.

Artículo 14. Concesión

Los criterios básicos para la concesión de las ayudas se detallan en el art. 4 y 5 de las bases reguladoras.

Comprobado el cumplimiento de las condiciones y requisitos, se concederán las ayudas, en las condiciones establecidas en las bases reguladoras.

Artículo 15. Procedimiento

Instrucción y propuesta

1. El **órgano** **instructor** para la **concesión** de las **ayudas** recogidas en las **bases reguladoras** será la **Dirección** del





Udaleko Gizarte Ekintza Komunitario Saileko Zuzendaritza izango da.

Ebazpen proposamena egiteko eskumena duen organoa Dirulaguntzen Emakidako Batzordea izango da. Organo hori osatuko dute kide hauek:

-Burua: Arloko zinegotzia edo bera ordezkatzeko duena.

-3 batzordekide: saileko teknikaria, Idazkaria eta Kontu-Hartzailea edo bera eskuordetzen duena.

-Idazkaria: Saileko teknikaria edo bera ordezkatzeko duena.

Berariaz eratuko den Balioztapen Batzordeari dagokion deialdian aurreikusitako dirulaguntzak bideratzea. Eskabideak dagokion Batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eta, irizpen bidez, ebazpen proposamena egingo dio dagokion organoari.

departamento de Acción Social Comunitaria del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

El órgano competente para emitir propuesta de resolución será la Comisión de Concesión de Subvenciones que estará formado por los siguientes miembros:

- Presidenta: Concejala del Área o persona que le sustituya.

- 3 vocales: Técnica/o del área, Secretaria e Interventora o persona que le sustituya

- Secretaría: Técnica/o del Área o persona que le sustituya.

Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas por la correspondiente Comisión y, mediante un dictamen, realizará una propuesta de resolución al órgano competente.

Ebazpena.

1. Behin betiko ebazpen proposamena onartzen denean, Gizarte Ekintza Komunitario arloko Zinegotzi Arduradunak prozedura ebatziko du Oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera, eta prozeduran azaldu beharko dira ebazpenaren oinarri eta zioak.
2. Ebazpenean berariaz adierazi beharko da, bere kasuan, gainerako kasuak onartzen ez badira.

Resolución.

1. Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva la Concejala del Área de Acción Social Comunitaria resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases reguladoras, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.
2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso del resto de las solicitudes





3. Ebazteko eta jakinarazteko epea 2025ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Esandako epean ebazpena ematen ez bada, aurkeztutako eskaria onartu ez dela ulertuko da.

4. Ebazpenean adieraziko da dirulaguntza zenbatekoa den eta nola ordainduko den.

16. artikulua. Dirulaguntzen kontrola

Amorebieta-Etxanoko Udalak egoki jotzen dituen agiri guztiak aurkez ditzatela eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal zerbitzuak bertaratu ahal izango dira, edota Udalaren datu baseak kontsultatu ahal izango dituzte dirulaguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Amorebieta-Etxanoko Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko, informaziorik eskatuz gero, dirulaguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

17. artikulua. Publizitatea

Ez dira dirulaguntzaren datuak argitaratuko dirulaguntzaren xedea dela-eta, pertsona fisikoen errespetu, ohore eta intimitate pertsonal eta familiarraren kontrakoa izan daitekeelako.

18. artikulua. Errekurtsoa

Dirulaguntza emateko ebazpenaren kontrako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da erabakia hartu duen organoan, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

3. El plazo máximo para resolver y notificar será antes del 31 de diciembre de 2025.

La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

4. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

Artículo 16. Control de la subvención

El Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano podrá requerir a las beneficiarias y los beneficiarios la presentación de cuantos documentos se consideren oportunos.

Los Servicios Municipales podrán acudir e inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases reguladoras.

Las y los beneficiarias/os de las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano en el ejercicio de sus funciones de fiscalización.

Artículo 17. Publicidad

No se publicarán los datos de las subvenciones de esta convocatoria, en razón a que el objeto de la subvención puede ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas.

Artículo 18. Recursos

La resolución de la concesión de las subvenciones podrá ser objeto de recurso de reposición ante el órgano que dictó la misma en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

